



Esp. zk.: SUBV_CON_COMPET/2020/21

DEIALDIA, 2020. URTEAN DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN
EMATEKO HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO TOKI-ENTITATEEKIN TOKIAN TOKIKO
GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK GAUZATU DAITEZEN.

Deialdi honen helburua da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)[n](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Iruñeko Udalak, 2020ko aurrekontuan, 1.554.772,30 euroko zenbatekoa aurreikusi du Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, herrialde pobreenetako komunitate behartsuenei laguntze aldera.

Gure mundu honetan, non Iparraren eta Hegoaren arteko desorekak gero eta handiagoak izaki pobrezia-maila areagotu egiten baita eta oinarriko gabeziak, gizarte-tentsioak eta epe luzerako pobretze-prozesuak sortzen baitira, beharrezkoa dugu gizarte bidezkoago, sentikorrago eta solidarioago baten alde lan egitea, hori oinarri harturik herrialde ororen garapena sustatzeko, betiere errespetua, elkarrizketa, lankidetzeta eta gizarte-egitura indartuz.

Testuinguru horretan, deialdia hau tresna bat da Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 2018ko martxoaren 1ean onetsitako Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea (2018-2021) garatu eta abiatzeko.

Halaber, deialdi honek Udalaren tresna bat izan nahi du Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrek 2015eko irailean egindako goi-bileran proposatutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetze aldera. Aipatu bileran, hain zuzen, onetsi zuten NBEko kide diren estatuek Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda.

Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak honako jardute-ildo hauek ditu oinarri:

a) Sentsibilizazio-jarduerak finantzatzea beste batzuekin batera, betiere Hegoaldeko herrialdeen egoera, egoera horren zio eragileak eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak ardatz hartuta.

b) Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeek (GGKE) garapenaren alde eginiko proiektuak finantzatzea beste batzuekin batera, bi helbururekin, hots, Hegoaldearen garapenaren alde aritzea eta Udalbarrutiko elkarte solidarioen sarea bizkortzea.

c) Larrialdietako jarduketak humanitarioetan laguntzea.

d) Udalaren zuzeneko inplikazioa Hegoaldeko toki-erakundeekin, lankidetzeta proiektuetan.

e) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) sortu duen Lankidetzako Toki Funtsean parte hartzea.

f) Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan eta gure hirian lanean ari diren GGKEekin jardutea, parte hartuz eta informazioa emanez.



A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkarria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua da proiektuak beste batzuekin batera finantzatzea, horretarako dirulaguntzak emanez, proiektu horiek garapen bidean dauden herrietan gauzatzeko. Proiektuek tokian tokiko giza-garapena sustatzera bideraturik egon behar dute hezkuntzaren, prestakuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, giza eskubideen defentsaren, garapen ekonomikoaren edo hiri nahiz landa komunitateei onura ekartzen ahal dieten azpiegituren arloetan.

Komunitate hartzaileek eta beren ordezkariak (eta nolana ere, herrialde hartzaileetako toki-erakundeak edo udalak) aktiboki hartu behar dute parte, diruz lagundu beharreko proiektuak proposatu, kudeatu eta gauzatzean. Proiektuak herrialde hartzaileetako gizarte-erakundeek edo toki-erakundeek gauzatu dituzte.

Aurkeztutako proiektuek txertaturik egon beharko dute tokiko erakunde onuradunen Udal Garapeneko plangintzetan dirulaguntzaren eskaera aurkezten den unean, edo, bestela, konpromisoa aurkeztu beharko da proiektuak Garapen-plangintza horietan lau hilabeteko epean txertatzeko, dirulaguntza ematearen gaineko jakinarazpena egiten denetik aitzina kontatuta. Nolanahi ere, proiektuen esku-hartzeko ildoetan jasota egon behar du toki-erakunde hartzaileen udalak babesteko xedeak.

Honako hauek hartuko dira garapenaren bideko edo trantsizioko herrialde edo lurraldetzat, eta, hortaz, Deialdi honetan funtsak jaso ditzakete: ELGAko Garapenaren aldeko Batzordeak Garapenaren aldeko Laguntza Ofiziala jaso dezaketen herrialde onuradunen indarreko zerrendan sartu dituenak.

Deialdi honetara aurkezten ahalko dira honako modalitate hauetakoren batean sartutako proiektuak:

* A modalitatea: Tokiko garapenerako nazioarteko lankidetzako proiektu BERRIAK, Hegoaldeko toki-erakundeekin egitekoak. Deialdi honetan aurrez finantzatu ez diren proiektuak dira.

* B modalitatea: Tokiko garapenerako nazioarteko lankidetzako proiektuen JARRAIPENAK, Hegoaldeko toki-erakundeekin egitekoak.

Deialdi honetan, honako hauek dira diruz lagundutako proiektuen jarduteko lehentasunezko arloak:

a) Oinarrizko beharrak asetzea:

- Tokiko proiektuak oinarrizko azpiegiturak abian jartzeko: oinarrizko hezkuntza, oinarrizko osasuna, populazioa eta ugalketa-osasuna, etab.

- Tokiko proiektuak edateko uraren zikloaren kudeaketarako: harguneak, hornidura, banaketa, saneamendua eta tratamendua.

- Proiektuak etxebizitza eta bizigarritasun duinak lortzeko: etxebizitzak eraikitzearen erkidego-programen sustapena.

- Tokiko proiektuak gizarte-zerbitzuak abiatzeko sektore zaugarrienei laguntza emate aldera.

b) Gaitasun tekniko-politikoak sortzen laguntzea Hegoaldeko udaletan:

- Tokiko ekonomia garatzeko proiektuak.

- Tokiko proiektuak, lurraldearen antolamendurako edo garapenaren planifikaziorako.

- Tokiko erakundeak sendotzeko proiektuak.

c) Gizarte zibilaren partaidetza indartzea. Giza-eskubideen babesa eta begirunea.

d) Ingurumenaren kalitatea babestu eta hobetzea, eta biodibertsitatearen arazoizko kontserbazioa eta erabilera zentzuzkoa eta ingurumenarekiko jasangarria.

2. Deialdiaren helburua:

Hegoaldeko toki-erakundeekin giza garapen jasangarriaren alde egitea, haietako biztanleek haien kabuz



kudeatu eta iraunarazi ahalko dituzten proiektuak gauzatu, eta Udalen parte-hartze aktiboa sustatzea.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Proiektuek edo jarduketek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dirulaguntza jasotzeko:

- a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea.
- b) Proiektuak identifikatu eta formulatu behar dira Marko Logikoaren Ikuspegian oinarrituta, edo, bestela, beste metodologia normalizatu batean, non argi eta garbi eta modu antolatua batean zehaztuko baitira esku-hartzearen helburuak, espero diren emaitzak eta proiektua gauzatzeko behar diren jarduerak eta baliabideak.
- c) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzear arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.
- d) Proiektuaren ezaguera zabala erakustea, eta azaltzea nolako harremanak eduki behar dituen tokiko bazkidearekin edo komunitate hartzailearekin dirulaguntzaren xede den jarduketaren jarraipena egiteko.
- e) Bere baitan botikak emateko edo horiek eskura jartzeko jarduerak hartzen dituzten proiektuak Osasunaren Munduko Erakundeak botikak emateko ezarritako Jarraibideei lotu beharko zaizkie.
- f) Proiektua jarduketaren xede den Udalaren Garapen Plangintzaren parte izatea, edo, bestela, Udalaren konpromisoa aurkeztea, dirulaguntza jasoz gero, hura lau hilabeteren epean Plangintzan txertatzeko, dirulaguntza ematearen gaineko jakinarazpena egiten denetik aitzina kontatuta.
- g) Proiektuari lotutako sentsibilizazio-jarduer(ar)en proposamen bat proiektuan sartzea, zeina Iruñean eginen baita.
- h) Proiektuaren udal hartzaileak aktiboki jardutea proiektuan.
- i) Deialdi honen kargura diruz lagunduko den epea urtebetekoa izanen da.

A modalitatean aurkezten diren proiektuen kasuan (Proiektu Berriak):

- j) Aurreko i) klausulan ezarritakoa gorabehera, epe ertain eta luzerako eraginak lortzeko diseinatuko dira proiektuak, eta, beraz, jarraitutasun-programazioa izan beharko dute hurrengo bi urteetarako, betiere urte beteko fase independenteetan banatu daitezkeelarik.

Halaber, B modalitatean (Jarraipen Proiektuak) aurkezten diren proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- k) Finantzaketa jaso izana Hegoaldeko herrialdeetako toki-erakundeekin garapenaren aldeko lankidetzaproiektuak gauzatzeko Iruñeko Udalaren 2019ko dirulaguntzen deialdian, eta aipatu Deialdiaren Oinarrietan eskatutako justifikazio-baldintzak egunean izatea (2020ko irailaren 1ean justifikaturik edukitzea 2019an jasotako finantzaketaren % 50).
- l) 2020an jardunean aritzea eta 2021ean proiektuarekin jarraitzeko proposamen bat aurkeztea.

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskabide bat aurkezten ahalko du Deialdiak hartzen dituen modalitateetako bakoitzean (proiektu bat entitate eta modalitateko), baldin eta horretarako baldintzak betetzen baditu.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 180.000 €

Aipatu aurrekontu-kontsignazio horretatik, 140.000 € egotziko dira gastu arruntak estaltzeko den 71/23930/490000 partidaren kargura, eta 40.000 €, kapital- eta inbertsio-gastuak estaltzeko den 71/23930/790000 partidaren kargura.

Halaber, gehieneko aurrekontu-kontsignazioa honela banatzen da honako modalitate hauetan eta jarraian adierazitako zenbatekoekin bat:

- A modalitatea: 60.000 euro.
- B modalitatea: 120.000 euro.

Atal honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, deialdi hau ebatzen denean funts erabilgarririk



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

baldin badago, deialdi honetara bideratzen ahalko dira eta horren guztizko zenbatekoari gehitu. Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 71/23930/490000
71/23930/790000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Onuradun bakoitzari gehienez emanen zaion kopuruak ezin izanen du gainditu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren % 90, eta, betiere, finantzatutako proiektu bakoitzeko gehieneko muga 60.000 euro izanen da.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada: nola hainbanatu:

5. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Zenbait urtetarako deialdia izanez gero, zenbait urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	180.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke dirulaguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezin debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izan beharko dute.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Ageriko helburu gisa izatea, haien estatutuetan edo aurreko urteetako memorietan jaso, garapenaren aldeko lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasuna sustatzearekin zerikusia duten jarduerak gauzatzea.

d) Iruñean (edo Iruñerrian) egoitza edo ordezkartza iraunkorra izatea. Iruñeko esparruan jardutea, lankidetzaren programen kudeaketari, giza-laguntzari edo Hegoaldeko herrialdeekiko sentsibilizazioaren sustatzeari dagokienez. Horretarako, agiriak aurkeztu beharko dituzte, Iruñean azkeneko urtean egindako jarduerari buruz.

e) Tokiko kide bat edukitzea (kontrapartea) proiektua garatu behar den eremuan. Kide hori Administrazio Publiko bat izan daiteke, edo, bestela, GGKE bat, barne harturik eskaera egiten duen GGKEak herrialde hartzailean duen ordezkartza ere.

f) Halako egitura bat edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala bere helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

g) Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren deialdi honetan zein besteren batean aurretik beste dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki Deialditik kanpo geratuko dira.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- h) Gutxienez hiru urteko eskarmentu egiaztatua edukitzea garapenaren aldeko lankidetzaren proiektuen kudeaketan.
- i) Gutxienez sei proiektu egoki kudeatu izana dirulaguntza publikoen kargura, eta horietako hiru gutxienez herrialde hartzailean.
- j) Gutxienez bi urteko eskarmentu egiaztatua edukitzea aurretik, lankidetzaz bezainbatean, proiektuaren herrialde hartzailean.

Berariaz deialdi honetatik at daude honako hauek:

- k) Enpresak eta irabazi-asmoa duten beste edozein entitate.
- l) Azken hamabi hilabeteotan Iruñean jardun ez duten GGKEak, deialdi honetara finantzaketa-eskabidea noiz aurkeztu eta data hori kontuan hartuta. Hau da, epe horretan Iruñean sentsibilizazioaren, laguntza humanitarioaren edo lankidetzaren esparruetan jendaurreko jarduerarik egin dutela egiaztatzen duen agiririk aurkezten ez duen elkarte oro; ez dira jardueratzat hartuko hedabideetan noiz edo noizko agertze hutsa edo horietan artikulua edo elkarrizketak argitaratu izana eta entitate eskatzailearen barne-jarduerak (prestakuntza, hedapena, etab.).

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

- a) Proiektua gauzatea eskabidean adierazitakoarekin bat; proiektuari hasiera eman beharko diote, gehienez ere, dirulaguntza jaso eta hilabeteke epean, salbu eta aparteko edo ezinbesteko inguruabarrek hala egitea galarazten badute, edonola ere, inguruabar horiek justifikatu beharko dituztelarik.
- b) Organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, diruz lagundutako jarduera egin dela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dela, horretarako aurkeztuta P) letran adierazitako tarteko zein amaierako jarraipen- eta justifikazio-txostenak.
- c) Iruñeko Udalarari jakinaraztea proiektua garatzen ari den bitartean GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan gertatu aldaketak oro: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria eta abar.
- d) Iruñeko Udalarari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, baimena eskatzea, betiere Deialdi honen F) letran ezarritakoarekin bat.
- e) Behar bezalako publizitatea egiteaz gain, jakitera emateko Iruñeko Udalak finantzatu duela proiektua, (E) letra honetan jasotako hedapen-neurri zehatzak hartu beharko dituzte eta Iruñeko Udalarekin elkarlanean jardun beharko dute proiektuaren garapenaren berri emateko, xede harturik iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatzea, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.
- f) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kargura egiten diren material-, ekipamendu- eta hornidura-erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, deialdi honen unitate kudeatzaileari, hau da, Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Programari.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

g) Jasotako funtsek sortzen dituzten finantza-etekinak edo interesak erabiltzea bakarrik diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari lotutako zuzeneko gastuak ordaintzeko. Halako kasuetan, onuradunak banku-agiri bidez egiaztatu beharko ditu etekin horiek, bai eta adierazi ere, justifikazio ekonomikoan, etekin horiek zer kontzepturi egotzi dizkion.

h) Jasotako funtsak itzultzea, hala deialdi honen (Q) letran nola Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako kasuetan.

Horretaz gain, eta A modalitatean (Proiektu Berriak) diruz lagunduko diren proiektuetan bakarrik:

i) Behin ebazpena jakinarazita, dirulaguntzaren berri eman beharko zaio tokiko kideari eta Udal hartzaileari; horiekin Erantzunkidetasun Hitzarmen bat sinatu beharko dute, finantzatuko den lankidetzaprograma garatzeko. Hitzarmen hori Udal Erregistro bidez helaraziko zaio Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaprogramari, gehienez ere hiru hilabeteko epean, dirulaguntza noiz kobratu eta ordutik aitzina kontatuta.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk: Proiektuaren hartzailea den Hegoaldeko Toki-erakundearen jasota agertuko da eta behar bezala hedatuko, jasotako finantzaketa Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak emana dela.

- Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikularekin bat: BAI EZ

Xede-epa: GGKEak edo entitate onuradunak dirulaguntzaren xede den helburuetarako erabili beharko ditu ondasun horiek, gutxienez zazpi urteko epean, erregistro publikoan erregistratzen ahal diren ondasunen kasuan, eta gutxienez bi urtekoan gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatu ahal diren ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

Garapenaren aldeko lankidetzaproiektuek, beren ezaugarriak eta gauzatzeko testuingurua direla-eta, aurreikusi ezin diren inguruabarrak izan ditzakete, proiektuaren garapena nabarmen aldatu edo oztopatzen dutenak, eta horiek berekin ekartzen ahal dute hasierako proposamena egokitzeko beharra, zertara eta jarduketak non egin eta bertako errealitatera. Egoera horien aurrean funtsezko aldaketak sartzen ahalko dira proiektuan. Funtsezko aldaketatzat joko dira, bakar-bakarrik, honako hauei eragiten dietenak:

- proiektuaren helburuei edo espero diren emaitzei.

- populazio onuradunari, lurralde-kokapenari eta tokiko bazkideari

- Aurrekontuari, betiere eskaera aurkeztutako aurrekontutik % 20tik gora aldentzen diren kasuetan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio unitate kudeatzaileari



(Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari), aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen, eta beharrezkoa izanen da Iruñeko Udalaren alde aurreko onespina.

Proiektua gauzatzean gerta daitezkeen gainerako gertakariak eta aldaketak justifikazio-txostenetan (aldi batekoak zein amaierakoak) adieraziko dira.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Dirulaguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

Eskaerak telematikoki ere aurkez daitezke, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es) argitara emandako pertsona juridikoendako Dirulaguntzen eskaera elektronikoa delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako eranskinak.

2. Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 26ra bitartekoa izanen da, bi modalitateetarako, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko eskabidez (aurkezpen telematikorako), interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizuna hartzen duen pertsonak sinaturik, betiere deialdi honen I. eranskinarekin bat. Hurrengo paragrafoan adierazitakoa ezertan galarazi gabe, eskabidearekin batera deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) puntuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste ezein Administrazioek egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazioek egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluekin aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.



Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Aurrekoa gorabehera, eta salbuespenez, Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio honako hauek aurkeztea:

- Estatutuak.
- Ziurtagiria, egiaztatzeko Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkartearen Erregistroan izena emana duela.
- Identifikazio Fiskaleko Txartela.
- Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa).

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio haiek aurkeztea.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako aitortpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Memoria bat, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori V. Eranskinen inprimakiarekin bat aurkeztu beharko da. Memoria horren barruan, laburpen-orri bat aurkeztu behar da word formatu digitalean, proiektuaren alderdi hauek jasota: kokapen geografikoa, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jarduerak eta tokiko kidearen aurkezpen laburra. Edonola ere, proiektua garatzeko aurreikusi diren gastuen eta sarreraren aurrekontu banakatua aurkeztu beharko da, bai eta entitateak jartzen dituen baliabideak – bereak edo tokikoak-.

g) Tokiko kidearen edo kontrapartearen (herrialde hartzailea) nortasun juridikoa egiaztatzeko honako agiri hauek, direla jatorrizkoak direla kopia ziurtatuak:



g.1) Gizarte-erakundeen kasuan:

- Estatutuak
- Legezko eraketa egiaztatzeko agiria, proiektuaren onuradun den herrialdeko legeekin bat.
- Legezko helbidea, osorik.
- Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa).

g.2) Udalen kasuan:

- Erakundearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta horren akreditazioa: Alkatea edo antzeko karguduna (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa)
- Kargudunaren izendapenaren Erabakiaren kopia edo horren lekukotza ematen duen agiri ofiziala.
- Legezko helbidea, osorik.

h) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera –aurreko urteetan aurkeztua izanagatik ere–, betiere data eguneratua duelarik eta IV. Eranskinen inprimakiarekin bat.

i) Aurkeztutako proiektuarekin zuzeneko harremana izanen duten Iruñeko edo Iruñerriko GGKEaren egoitzako pertsonen zerrenda, bertan adierazita bakoitzak proiektuan bete behar dituen eginkizunak (koordinazioa, lan teknikoak...) eta aritu behar duen denbora (lanaldi osoa edo partziala). Proiektuaren aurrekontuan atzeratutako langileen gastuak sartuta egonez gero, langile horien zerrenda aurkeztu beharko da, haien eginkizunak eta lanaldi-motak adierazita.

j) GGKE eskatzaileak azken urtean Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan egindako jardueren gaineko egiaztagiria.

k) Proiektuaren kokagune zehatzari buruzko mapak (herrialdea, eskualdeko edo departamentuko mugapea, probintziakoa eta udalekoa).

l) Gauzatu beharreko proiektua zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (agiri grafikoak, teknikoak, finantzakoak edo bestelakoak), baldin eta proiektuarekin zuzeneko harremanik badute.

A modalitatean (Proiektu Berriak) aurkeztu diren GGKEek, aurreko gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

m) Entitate eskatzailearen, tokiko kidearen (kontrapartea) eta xede den Udalaren arteko alde aurreko akordioa, proiektua Deialdi honetara aurkezteari buruzkoa eta sinatu beharreko Hitzarmen-ereduari buruzkoa, baldin eta dirulaguntza jasotzen bada, non arautuko baitira proiektua gauzatzean alde bakoitzak izanen dituen esku-hartzea eta ardura.

n) Udal onuradunaren ziurtagiria, non egiaztatuko baita Udal Garapen Plan bat edo antzekorik badela, zeinean aurkeztutako proiektua sartuko baita, eta bertan adierazita onespenez eta planaren iraupena. Edo, bestela: idatzizko konpromisoa, non jasoko baita dirulaguntza jasoz gero proiektua Udalaren Garapen Plangintzaren baitan sartuko dela, gehienez ere lau hilabeteko epean entitate onuradunari dirulaguntza ematearen gaineko ebazpena jakinarazten zaionetik aitzina kontatuta. Udalaren Garapen Plangintza horren kopia bat aurkeztu beharko da euskarri informatikoan.

o) Akreditazioa, Garapenaren aldeko proiektuen kudeaketan hiru urteko esperientzia eta dirulaguntza publikoen kargura gutxienez sei proiektu kudeatu izana egiaztatzeko (horietako hiru, gutxienez, herrialde hartzailean). Kudeatutako proiektuen akreditazioa finantzaketa egin duten administrazio publikoek emandako ebazpenen bidez egin beharko da.

p) Erakunde eskatzaileak proiektuaren xede den herrialdean alde aurretik egindako lanaren akreditazioa.

Ahal dela, formatu digitalean aurkeztu behar da I. Eranskinetik VII.era jasota ez dagoen dokumentazio osagarri oro. Dokumentazio osagarri horrek gaurkotua egon behar du eta zuzeneko harremana eduki garatu beharreko proiektuarekin.



Ez dira aurkeztu beharko atal honetako a) eta g) letretan zehaztutako agiriak, baldin eta Iruñeko Udalaren eskuetan badaude eta horietan aldaketarik izan ez bada; horrelakoetan, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da, eta bertan adierazi noiz eta zein organotan edo bulegotan aurkeztu ziren edo, halakorik balitz, zeinek eman zituen edo zeinetan dauden jasota. Edozein kasutan, ezin izanen dira bost urte baino gehiago igarota izan dagokien prozedura amaitu zenetik. Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak. Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak) eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

175 PUNTU GEHIENEZ ERE

- A. Proiektuaren kalitate teknikoa: 50 puntu
- Informazioa, garatu beharreko proiektuari, horren testuinguruari eta abarri buruz.
 - Proiektua identifikatzeko garatutako prozesua.
 - Informazioa, proiektua zein sektoretan kokatu eta horren egoerari buruz (testuingurua, baliabideak, azpiegiturak...).
 - Koherentzia-maila jarduketaren justifikazioaren, ezarritako helburuen eta proposatutako jardueren artean (Marko Logikoaren Ikuspegia).
 - Gauzatu beharreko jarduketaren bideragarritasun teknikoa.
 - Proiektuan eraginik izan dezaketen arriskuen gaineko balorazioa.
 - Proiektuak ingurumenean eragindako inpaktuak kontuan hartzea (halakorik balitz).
 - Proiektuaren irauteko ahalmena, behin diruz lagundutako jarduketa gauzatuta, eta Udalaren parte-hartzea hori kudeatzean edo mantentzean.
 - Proiektuaren jarraipena eta amaierako ebaluazioa.
 - Proiektuaren osagarritasuna eskualdean egin diren beste garapen-ekintzekin.
- B. Proiektuari ekin behar diotenen gaitasuna zein horien harremanen kalitatea..... 42 puntu
- GGKE eskatzailearen eskarmentua eta gaitasuna garapenaren aldeko proiektuetan.
 - GGKE eskatzailearen eskarmentua eta gaitasuna jardun behar duen sektorean.
 - GGKE eskatzailearen eskarmentua jardute-eskualdean.
 - Tokiko bazkidearen eskarmentua proiektuen kudeaketan.
 - Tokiko bazkidearen eskarmentua, jardute-sektorean eta -eskualdean.
 - Proiektuaren udal hartzailearen eskarmentua proiektuen kudeaketan eta jardute-sektorean (halako kasurik bada).
- Udalaren Garapen Plangintza: Proiektuaren garapenaren norainokoa eta hura Plangintzan duen integrazio-maila.
- Aurkeztutako proiektuak tokiko udalari dakarkion sendotze-maila.
 - Udal hartzaileak aktiboki inplikatzeko proiektuaren garapenean.
 - Lankidetzako aurrekariak izatea, GGKE eskatzailearen eta Udal hartzailearen artean, garapenaren aldeko lankidetzako proiektuak elkarrekin egiteko orduan.
 - Proiektua aurkeztu eta garatzeko orduan parte hartzea, baita ere, zenbait GGKEk, Iruñeko Udaleko beste udal-alor batzuek eta Iparraldeko beste zenbait eragilek.
- C. Populazio onuraduna: 10 puntu



- Populazio onuradunari buruz aurkeztutako informazioa.
 - Onuradunen parte-hartze maila, proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzean.
- D. Proiektuaren gizarte-helburuak 30 puntu
- Proiektuan generoaren ikuspegia kontuan hartzea, emakumeen bizimodua hobetzea eta horien eskubide eta aukerak sustatzea.
 - Giza eskubideak sustatu eta defendatzea.
 - Proiektuak noraino jasotzen duen Eskubideen Ikuspegia (GEI).
 - Lanbide-prestakuntza, batik bat sektore behartsu eta baztertuenena.
 - Komunitatearen oinarrizko partaidetza eta antolamendua sustatzea.
 - Tokiko partaidetza-organoak sustatzea, Hegoaldeko Toki-erakundeen eta gizarte zibilaren artean: Garapen-kontseiluak, mahai sektorialak, etab.
- E. Egokitzapen-maila, deialdi honetan lehentasunez ezarritako sektore eta biztanle-multzoekiko: 10 puntu
- F. Aurrekontua: 15 puntu
- Egokitzea kofinantzaketa-baldintzetara eta ezarritako mugetara.
 - Proposatutako jardueri egokitzea.
 - Aurrekontuen banakatzeko- eta programazio-maila.
 - Finantza-bideragarritasuna (beste kofinantzaketak eta proformako fakturak).
- G. Tokikoak proiektuarekin identifikatzea eta engaiatzea: 12 puntu
- Iruñeko taldeen eta dirulaguntzaren xede den tokiko taldeen artean jada dauden edo bultzatu nahi diren elkartasun-harremanak, eskaera egiten duen GGKEren eta tokiko bazkidearen arteko ohiko harremanetik harago doazenak.
 - Sentsibilizazio-jarduerak Iruñean egiteko proposamena, horiek proiektuarekin zuzenean lotuta egonen direlarik horren parte direlako.
 - Beste zenbait: proiektuaren kudeaketa Iruñerrian; finantzaketan parte hartzea Iruñeko talde pribatuek; proiektuan iruindar boluntarioek jardutea; Iruñeko etorkinen taldeek parte hartzea beren jatorrizko tokiei eragiten dieten egoeretan.
- H. Lankidetzaren deszentralizatuaren kohesioa: 6 puntu
- Jarduketa izatea Udalak edo Lankidetzaren Deszentralizatuko beste erakunde batzuek aurreko aldi batean eta toki berean babestutako proiektu baten edo jarduketa-programa baten jarraipena.
- * Dirulaguntza eskuratzeko moduan egoteko proiektuak, gutxienez, 115 puntu lortu beharko ditu.
- * Puntuazio hori gainditu duten proiektuen artean honela banatuko dira dirulaguntzak, C letran jasotako aurreikuspenekin bat:
- A modalitatea_Proiektu berriak: gehieneko puntuazioa lortzen duena eskatutako kopuruaren % 100ean finantzatzeko da, 60.000 € muga izanik.
 - B modalitatea_Jarraipen proiektuak: dirulaguntza jasoko dute gutxienezko puntuazioa lortu duten proiektuek orok.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkarria
Batzordekideak:	



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

1.	Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria / Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko idazkari teknikoa (ordezkoa)
2.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat
3.	Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programako teknikari bat
Idazkaria:	Komunitate Ekintzako, Garapenaren aldeko Lankidetzako eta Kiroleko Alorreko legelari bat / udal-legelari bat (ordezkoa)

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat: Deialdi honetan eskabideak aurkezteko mugaegunetik (2020ko ekainaren 26a) aitzina.

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Iruñeko Udalaren webgunean.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:

a) Zuzeneko gastutzat joko dira proiektua gauzatzeari zuzenean lotutakoak eta finantzabide direnak proiektuaren helburuak lortzeko. Hona diruz lagundu daitezkeen zuzeneko gastuak:

1. Materialak erosi eta garraiatzea, eraikuntza-lanak, hornidurak, ekipoak eta beste ekoizpen-aktibo batzuk, bai eta langile- zein funtzionamendu-gastuak ere, proiektuari zuzenean loturik badaude. Dirulaguntza lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespena izanen da, eta, betiere, halakorik egiteko, behar diren dokumentuak oro aurkeztu beharko dira, ondasunen egoeraren berri emateko legeei doakienez, eta benetan erosi daitezkeela frogatzeko. Horretaz gain, ondasun horien titulartasuna proiektua gauzatzeko ari den herriaren ordezkari den erakunde komunitario batek bereganatu beharko du. Baldintza horrek balio du, baita ere, eraikin berriak eraikitzea helburu duten proiektuetarako.

2. Tokian egindako identifikaziotik eratorritako gastuak, baldin eta horiek Deialdi honetara proiektuak aurkezteko epea amaitu aurreko sei hilabeteen barruan egin badira eta dirulaguntza osoaren % 5 baino gehiago ez badira. Kontzeptu honi egozten ahal zaizkion gastuak izanen dira honako hauetatik zuzenean eratorritakoak: diagnosiak, identifikazio-lantegiak, alde zuzeneko ikerketak, etab. (langileei dagozkien gastuak eta jarduerak eskatutako joan-etorriak eta egonaldiei dagozkionak).

3. Atzerritarik langile-kooperantei dagozkien gastuak. Kontzeptu hau dela medio gehienez jaso daitezkeen kopurua dirulaguntzaren % 10ekoa da, betiere aurkeztutako eskabidean zehaztuta ezinbestekoa dela kooperante horien parte-hartzea, aurkeztutako proiektuan espero diren emaitzak lortuko badira, eta adierazita langile atzerritaruen zerranda zein proiektuan betetzen dituzten eginkizunak. Atzerritarik langile-gastutzat joko dira langile horiek sortutako guztiak (nominak, bidaiak, ostatukoak, mantenukoak ...).

4. Bidaiak, ostatu hartzeak eta dietak. Proiektuko langileen eta populazio onuradunaren joan-etorriak eragindako gastuak dira, proiektua gauzatzeko beharrezkoak. Kontzeptu honen barruan sartzen dira ibilgailuen erregaiak, aseguruak eta mantentze-lanak, betiere aurrez esku-hartzearen aurkezpenean berariaz identifikatuta egon eta hari lotuta badaude.

5. Errotazio-funtsak. Kreditu-osagarriak duten esku-hartzeen kasuan, errotazio-funtsek ezin izanen dute gauditu finantzatutako zuzeneko gastuen % 10. Errotazio-funtzen entitate kudeatzaileari galdatzen ahalko zaio kanpoko finantza- eta kontu-ikuskaritza bat aurkez dezan.

6. Finantza-gastuak –notariotzakoak eta erregistrokoak–, eta banku-bermea ematekoak diruz lagundu daitezke, dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta ezinbestekoak badira jarduera hori prestatu edo gauzatzeko, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.7 artikuluan xedatutakoarekin bat.

7. Dirulaguntzek estaliko dituzte, zuzeneko gastuen partidaren barruan, Iruñeko udalerrian egindako sensibilizazio- eta hedapen-jarduerari lotutako kostuak, diruz lagundutako garapen-proiektuarekin zerikusia badute eta proiektuaren aurkezpenean egin beharreko jarduerak zehaztu badira, betiere jasotako dirulaguntzaren % 4ra bitarte. Ez dira kontuan hartuko, atal honetan, entitate onuradunaren sensibilizazio- eta hedapen-jarduera orokorrak.

b) Zeharkako gastutzat hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzeko euskarri direnak, betiere, zentzuz dagoen partean, oro har onartuak diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak kontuan hartuta:

1. Gastu hori esku-hartzea gauzatzeko ari den aldiaren egotzi behar da, eta entitate onuradunaren Iruñeko edo Iruñerriko egoitzarekin zerikusia eduki.

2. Dirulaguntzari loturiko zeharkako gastuek (administrazio- eta kudeaketa-gastuek) ez dute inolaz ere



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

jasotako dirulaguntzaren % 5 gaitutako.

c) Iruñeko Udalaren dirulaguntzak eragiten dituen finantza-etekinek dirulaguntzaren zenbatekoa handituko dute eta diruz lagundutako proiektuari aplikatuko zaizkio.

d) Iruñeko Udalaren diru-ekarpenaren bidez erositako ondasun guztiak proiektuaren populazio hartzailea ordezkatzeko duen erakundearen edo udalaren eskuetan geratuko dira proiektua amaitzean, eta hark konpromisoa hartuko du ondasun horiek erabiltzeko, zehazki, dirulaguntzaren xede izan diren helburuetarako, gutxienez hamar urteko epeaz, erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, edo hiru urtez, gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatu ahal diren ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

e) Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada –obra egiteko kostua izanez gero–, edo 12.000 eurotik gorakoa – ekipamendu-ondasunen horniduraren edo aholkularitza- edo laguntza-enpresen zerbitzuen kostuaren kasuan–, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei, dena delako zerbitzua edo ondasuna jasotzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen edo herrialdearen ezaugarri bereziengatik, merkatuan hornidura edo zerbitzua baldintza egokietan egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada. Hori gertatuz gero, txosten xehatua egin beharko da salbuespena egiaztatzeko. Txosten hori tokiko bazkideak egin beharko du, eta entitate onuradunak abala eman. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, eragimen eta ekonomia printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

f) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kontura egiten diren material, ekipamendu eta horniduren erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean edo ingurukoetan egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, deialdi honen unitate kudeatzaileari, hau da, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen:

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:

Proiektua gauzatzen hasten denetik (E. atalaren a) letran zehaztutakoarekin bat) deialdi honen P. atalaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu arte. Salbuespen moduan, tokian egindako identifikaziotik eratorriko gastuen kasuan epearen hasiera ez da kontuan hartuko, L.1.a.2 atalarekin bat.



M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak: % 90

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: % 10

Kofinantzaketan parte hartzeko kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lursail, areto, ekipo eta materialen zein onuradunen eta tokiko langileen eskulanaren balorizazioak, baldin eta zuzenean loturik badaude aurreikusitako jardueren gauzatzearekin. Ekarpene horiek kontraparteak egiaztaturik egon beharko dute, eta egiaztapen horretan deskribatu eta kuantifikatu beharko dira ekarpena, unitate-kopurua, lan-orduak eta unitate bakoitzaren prezioa (hala badagokio), guztizko balorizazioaz gain. Balorizazioak tokiko lan merkatuaren prezioari doitu beharko zaizkio.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren % 100 alde aurretik ordainduko da.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulaketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, alde aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.



2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: Dirulaguntza eman aurretik ez da eskatuko bermerako banku-abalik, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak izan eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarekin zerikusia duten jarduketa humanitarioak egin behar dituztelako; gainera, oinarri hauetan beraietan ezartzen dira dirulaguntzak kontrolatzeko eta justifikatzeko mekanismoak eta jasotako diru-kopuruak itzultzeko aukera.

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko ardura duten GGKE onuradunek proiektuaren garapenari buruzko deskribapen- eta finantza-txostenak aurkeztu beharko dituzte deialdi honen G.1) puntuan adierazitako tokietan, VI. Eranskineko inprimaki-ereduarekin bat.

Justifikazio-txostenetan (aldi batekoak zein amaierakoak) honako agiri hauek jaso beharko dira:

1. Txosten berri-emailea, aldi bakoitzari dagozkion jarduketei buruz.

2. Finantza-txostena, jasotako dirulaguntzari dagokionez. Txostenean honako hauek txertatu behar dira:

a) Agiri bat, non egiaztatuko baita dirulaguntzaren kopurua igorri diotela tokiko kide edo kontraparteari, eta aplikatutako diru-trukea adierazita.

b) Agiri bat, tokiko kidearen edo kontrapartearen legezko ordezkariak sinatua, non egiaztatuko baita dirulaguntza jaso dutela herrialde onuradunean.

c) Egindako jarduketan eta gastuaren justifikazio-kontua: Txosten tekniko eta finantzen zein kontabilitatearen gainekoa, proiektuaren gauzatzeari buruz, eta, horrekin batera, gutxienez agiri hauek:

- Proiektua nola gauzatu den zehatz-mehatz azaltzen duen memoria, onuradunak sinatua.

- Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

- Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak –entitate jaulkitzaileak behar bezala sinaturik–, nominak, tributuak, Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Emandako egiaztagirietan honako datu hauek jaso beharko dira, gutxienez: jaulkipen-data, jaulkitzailearen izena edo izen soziala eta identifikazio fiskalerako zenbakia edo antzekoa, kontzeptua, eta zenbatekoa, ordainketa zein monetatan egin den eta horretan adierazia.

- Hartzailearen egiaztagiria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

- Justifikatutako administrazio- eta kudeaketa-gastuak entitate onuradunaren Iruñeko edo Iruñerriko egoitzari egokituko zaizkio (mantentze-lanak eta diruz lagundutako proiektua prestatu eta gauzatzeko parte hartu dutenen langileen lansariak, horiek egoitza horri atxikirik daudela egiaztatuz), eta ez dira onartuko beste egoitza edo delegaziok kontzeptu horiek direla bide sortutako gastuak.

- Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak egiaztatzeko, gastu



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta argi eta garbi egiaztatuko da gastuaren eta gauzatutako proiektuaren arteko harremana.

- Gastuak Espainian egiten badira, gastuen egiaztigiriak jatorrizkoak edo organo kudeatzaileak konpultsatutako kopiak izanen dira. Bestelako kasuetan jatorrizko agiriak aurkezten ahalko dira, edo bestela fotokopiak, entitate onuradunaren legezko ordezkariak emandako kautotasun-ziurtagiriekin batera.

- Egiaztigiriak gaztelania, euskara, ingelesa edo frantsesa ez den beste hizkuntza batean idatzirik badaude, gaztelaniara itzuli beharko dira.

- Borondatez aurkez daitekeen beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.

Dirulaguntzaren justifikazioa egitean ez badira diruz lagundutako gastu guztien eta gastu horien ordainagirien kopia autentikoak aurkezten edo justifikazioa modu elektronikoan egiten bada, organo kudeatzaileak entitate onuradunari eskatuko dio jatorrizkoak aurkez ditzala, 10 egun balioduneko epean eta aurrez aurre, egiaztatzeko kopia solean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espeditentean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

Jatorrizkoak erakutsi ondoren desadostasunen bat atzemanaz gero, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko galdutako da, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere bai.

Ordenantzaren 34.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, berariazko justifikazio-araubide bat ezarri da Nazio Batuetako nazioarteko organismoendako. Edozein kasutan, horiei beti eskatuko zaie aurkez ditzatela finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztigiriak eta berariaz dagokien kontabilitate-kontrola, Estatu-parteei Nazio Batuen agentzietatik ezarritako funtzionamendurekin bat. Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak organismo horiei eskatzen ahal die beste edozein agiri entregatzeko, baldin eta egindako gastuaren justifikazio-kontuaren modalitateari badagokio eta Udalak garrantzitsutzat jotzen badu, betiere kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, eta ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla behar bezala justifikatzeko.

Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deia egiten ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) klausulan aurreikusitako onuradunen betebeharrak galarazi gabe.

Deialdi honen bitartez dirulaguntza jasotzen duten entitateek orok men egiten diete hala Iruñeko Udalaren eta horrek kontratatutako ikuskaritza- edo ebaluazio-enpresen edo entitateen nola Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiaren egiaztapen-jarduketari. Finantza-kontrola GGKE onuradunei edo entitate onuradunei egiten zaie, honako hauek egiaztatzeko: funtsak zuzen eskuratu direla, jasotako funtsak aplikatzean betebeharrak bete direla, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela eta aurkeztutako justifikazio-kontuaren arabera dirulaguntzaren bitartez finantzatu diren lanak benetakoak eta arauzkoak direla.

Behin dirulaguntza jaso duten GGKEek P.2) klausulan ezarritako epeetan justifikazio-txostenak aurkeztu eta gero, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deialdiaren jarraipenari buruzko amaierako txosten bat egiten du. Amaierako txosten hori, gehienez, hiru hilabeteko epean egin beharko da, justifikazioko azken txostena jaso eta hortik aitzina kontatuta, eta bertan jasoko dira hala garatutako jarduketak nola diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion justifikazio ekonomikoa. Amaierako Jarraipen-txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, hark onets dezan.



- Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.
Bestelako edukirik: BAI EZ
- Justifikazio-kontu erraztua.

- Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):
Zehaztu beharrekoak:
Modulua osatuko duten unitateak:
Moduluaren unitate-kostua:
Gainerako inguruabarrak:

- Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

- Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Honako data hauekin bat aurkeztu beharko dituzte justifikazio-txostenak:

- a) 2021eko irailaren 1a baino lehen: Txosten partzial bat, egindako jarduketan berri emateko eta 2020. urteari dagokion finantzaketaren % 50, gutxienez, justifikatzeko.
b) 2022ko martxoaren 31 baino lehen: 2020ko finantzaketaren Amaierako Txostena (jarduketak eginda eta emandako dirulaguntzaren % 100 jasota).

Finantzatu beharreko proiektuak zein testuinguru sozial eta geografikotan garatu behar diren kontuan hartuta, klausula honetan jasotako justifikazio-epeak betetzea galarazten duten arrazoitutako kausarik izanez gero, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luza daiteke, baldin eta horrekin ez badira kaltetzen hirugarrenen eskubideak. Horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu baino lehen, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

1. E) ataleko f) letran aipatutako erosketak egitea Iruñeko Udalak horretarako baimenik espresuki eta aldez aurretik eman gabe.
2. Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman, deialdi honen E) letran adierazitakoaren arabera, eta horretan erabiltzeko betebeharra ez betetzea.
3. Proiektuan funtsezko aldaketak egitea, F) letran aipatutakoak, Iruñeko Udalak horretarako baimenik espresuki eta aldez aurretik eman gabe.
4. Entitate onuradunak dirulaguntzaren dagokion parte itzuli beharko du, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu badira eta horren ondorioz Udalak erabakitzen badu dirulaguntzaren zenbatekoak jo behar duela entitateak jasotako dirulaguntzak baino gutxiago. Baldin eta proiektu berarentzat beste zenbait dirulaguntza jasotzeagatik entitate onuradunak jasotzen duen zenbatekoa bada diruz lagundutako jardueraren kostuena baino handiago, N letran ezarritakoa bete beharko da.



R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

--

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKAERA

V. ERANSKINA. HEGOALDEKO TOKI-ERAKUNDEEKIN GAUZATU BEHARREKO PROIEKTUAK AURKEZTEKO FORMULARIOA. 2020

VI. ERANSKINA. 2020. URTEAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK JUSTIFIKATZEKO FORMULARIOA

VII. ERANSKINA. AGIRIAK KONTSULTATZEKO BAIMENA.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*